



## **Bergarako Udalean dauden premiei erantzuteko, aldi baterako administrariak edo administrari laguntzaileak kontratatzeke edo izendatzeko deialdia, barne promozioan**

### **1.- DEIALDIAREN XEDEA**

Deialdiaren xedea da, administrarien edo administrari laguntzaileen plazei dagokienez, gaur egun Udalean dauden premiei erantzuteko, interinidade-izaerako kontratazio edo izendapenak egitea, BARNEKO DEIALDIAREN prozedura erabilita.

Halaber lan-poltsaren izaera izango du, beste departamendu batzuetako administrarien edo administrari laguntzaileen plazak betetzeko plaza bete arteko interinidade-izendapenak egiteko premien aurrean, udalak horrela erabakiko balu premia bakoitzaren aurrean.

Aldi baterako egoeran dagoen langile batek administrari edo laguntzaile plaza interinidatean hartuko balu, horrek aurretik indarrean zuen izendapena bertan behera lagatzea ekarriko du eta interinidatea amaitutakoan jatorrian zegoen lan-poltsara bueltatuko da.

Deialdiak presazko izaera du.

### **2.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Administrarien eta administrari laguntzaileen lanpostuetan interinidade-izaerarekin izendatzeko interesa duten Bergarako Udaleko langileek eman dezakete izena.

Ezinbesteko Baldintzak dira:

- a. Udalean C1 (lehengo D titulazio-taldea zena) titulazio-taldeko lanpostu batean karrerako funtzionario edo lan-kontratu finkoarekin kontratatuta egotea.
- b. 3. Hizkuntza Eskakizuna izatea.

Parte hartu dezakete, halaber, aldi baterako kontratuarekin daudenak, baina langile finkoek lehentasuna izango dute.

### **3.- LANPOSTUON EGINKIZUNAK**

Deialdi honen xede diren lanpostuen eginkizunak izango dira une honetan interinidade-izaerarekin aldi baterako egoeran hutsik dauden administrarien edo administrari laguntzaileen plazei dagozkienak: museoko administrari laguntzailearen plazari dagozkionak eta ABE/IT (aldi baterako ezintasun) luzearekin ordezkatzeke dagoen BAZeko plazari dagozkionak.

BAZekoaren amaieran, Idazkaritzan hutsik dagoen administrari laguntzailearen plaza betetzea ekar dezake (BAZeko ordezkapenak ere egingo lituzkeena, agintzen zaionean).

Aldi baterako kontratatzen den udaleko langileak lanpostu honetako premietara egokituko du bere lan-egutegia, eta langileak duen egutegi eta lizentzien gaintetik lanpostu berrikoak egongo dira; hau da, zerbitzuaren premietara egokitutako egutegi berria izango du, aurretik onartuta dituen oporrak eta antzeko lizentzia/baimenak atzera botatzea ekarri dezakeelarik, zerbitzuaren premietara egokitutako eskaera berriak tramitatu beharko dituelako.



Halaber, izendapena egin aurretik egin behar den formaziorako egutegia eta ordutegia derrigorrezkoa izango dute, jarritako ordutegian egingo dira eta errespetatu egingo dute. Ordu horiek egin eta gero, dagozkien lanpostuetan duten ordutegiarekin jarraituko dute ezinbestekoa den heinean.

Hauek guztiak deialdi honetan parte hartzearekin onartzen dituztela ulertuko da.

#### **4.- IZENA EMATEA ETA IZANGAIEN ONARPENA**

Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea izango da **irailaren 30etik urriaren 10eko 13:30ak arte**.

Instantziak aurkezteko epea amaiturik, Udaleko Lehendakariak onartutako eta baztertutako izangaien behin behineko zerrenda onartuko du eta Udaletxe honetako langileen iragarki-tauletan argitaratuko da **urriaren 14ean 13:30ean**.

Behin behineko zerrenda hori behin betikotzat hartuko da **urriaren 16ko 12:00ak** arteko epean inolako erreklamaziorik jartzen ez bada. Erreklamaziorik balego, horiek behin betiko zerrenda onartuko duen ebazpen baten bitartez onartuak edo baztertuak izango dira, zerrenda hau urriaren 16an eguerdiko 14:30ean argitaratuko delarik.

#### **5.- HAUTAKETA-PROZEDURA**

Izangaiak hautatzeko prozedurak hurrengo aldiak izango ditu:

- a) Oposizioaldia
- b) Lehiaketaldia

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da.

Ariketak egiteko epaimahaiak deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak –baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere– hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

#### **OPOSIZIOALDIA:**

Ondoren aipatzen diren ariketek osatuko dute:

- Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Baztertzaile izango diren ariketa teoriko-praktikoek osatuko dute; gehienez ere **30 puntu** izango ditu eta 15 puntu atera beharko dira gainditzeko.

Froga hauek izango dira ZERBIKATEko udaleko espedienteen informazioaren inguruan eta Bergarako web-orrietan (Bergarako Udala eta Laboratorium web-orrietan) jasotako edozein informazioaren inguruan.

Halaber, Excel eta Word programak erabilita ariketa bat egitea erabaki dezake epaimahaiak.

**Froga(k) urriaren 19ko astean egingo d(ir)a.**

- Bigarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailea.



Epaimahaiak erabakitako proba batzuk egitean datza, eskatutako euskara-ezaguerari dagokion maila egiaztatzeko. "Gai" edo "ez-gai" kalifikatuko da. Azterketa honek udal barnerako eraginak izango ditu soilik eta, beraz, ez da udaletik kanporako ziurtagiririk emango.

Ez dute proba hau egin beharrik izango eskaera-orriarekin batera eskatutako euskara-ezaguera dutela egiaztatu dutenek.

## **LEHIAKETALDIA**

Baztertzailleak diren ariketa teoriko-praktikoak gainditu dituztenen artean, hauek baloratuko dira, betiere eskaera-orrian aipatuta izan eta gainera egiaztatuta izango balira:

- 1.- 4. Hizkuntza Eskakizuna izatea: **5 puntu**
- 2.- Herritarren arreta zerbitzuan administrari laguntzailearen edo administrariaren kategoriarekin udal batean izandako esperientzia: hileko 0,25 puntu, gehienez ere **10 puntu** arte.
- 3.- Udalean duten antzinatasuna: hileko 0,10 puntu, gehienez ere **5 puntu** arte.
- 4.- Hizkuntzen ezagutza: Frantsesa, ingelesa edo beste batzuk, betiere hizkuntzaren ezaguerari dagokion egiaztagiri ofiziala erantsi bada, B2 edo C1 mailakoa denean (Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera –Marco Común Europeo de Referencia (MCER)–): hizkuntzako eta maila bakoitzeko agiriko 0,25 puntu.
- 5.- Herritarren arretari buruzko ikastaroak: 10 orduko 0,50 punturekin baloratuko da bakoitza eta gehienez ere 1,5 puntu arte.
- 6.- Administrazio Kudeaketako teknikariaren (Administrariaren edo administrari laguntzailearen) erdi mailako edo goi mailako lanbide-heziketako titulazioa izatea:
  - 1.- Goi mailakoa: 1 puntu
  - 2.- Erdi mailakoa: 0,50 puntu

## **6.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA**


Epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

Mahaiburua: Idazkaria

Mahaikideak:

- Kontratazio-teknikaria
- Laboratorium museoko arduraduna
- Normalizazio-teknikaria
- Idazkaritzako AOT
- Komiteak izendatutako kidea
- Euskara Zerbitzuko burua, euskarako probarako

Idazkaria: Udalekoa, edo hark delegatzen duen funtzionarioa



Aginte deitzaileak edo hark delegatzen duen pertsonak izendatuko ditu epaimahaiko kideak eta haien izendapena Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratuko da.

Egoki iritzitako probetan epaimahaiak dagokion gaian adituak diren beste aholkularien lankidetzara eska dezake.

## **7.- ONARTUEN ZERRENDA ETA KONTRATATZEKO PROZEDURA**

Oposizioaldiko ariketak eta Lehiaketaldiko balorazioa amaitutakoan, epaimahaiak onartuen zerrenda (puntuazio-hurrenkeraren arabera) argitaratuko du; zerrenda hori Alkate-Lehendakariari bidaliko dio onartu dezan.

Edozein ordezkapenentarako udaletik egindako eskaintzari ezetza emateak deialdi honetatik kanporatzea dakar.